

FEDEA eta EKINTZA

Apezpikuak eta Telebista

TVEk erlijio programetarako lantalde berria eratu du. Berrikuntza izugarria izan da hori. Guerra Campos monsinorea da orain buru. Baina izendapen hauk* ez dira egin, noski, Espainiako Apezpiku Elkargoak* dadukan batzorde* ofizialarekin kontatuz. Eta eman den arrazoina hauxe da: TVE ez da Elizarena, eta bere egitekoak libertate osoan egin ditzake. Hala dateke,* baina Madrileko «Ya» egunerokoak ere ematen ditu bere arrazoinak.

Agerkari honek esaten duenez, izendapenok ez doaz inondik ere, Apezpiku Elkargoak orain urtebete eskatzen zuen elkar hizketaren bidetik. Apezpiku talde osoak bere aldetik epaitu duen arazo batean, ez da bidezkoa, hori ahantzi nahi izatea. Bestelakorik nahi izanez gero ere, ezinezkoa da, Elizaren dotrinatzat eman nahi denaz (eta dadukagun telebista bakarraren bidez eman nahi denaz) apezpikuak ez arduratzea, dotrina haren irakasle direnez. Estatuak ezin dezake bere gain har irakaskintza erlijiosoaren egitekoa: lehendabizi, telebista Estatuaren tresna ez delako (beno: ez lukeela izan behar esan nahi du «Ya»k, noski), gizartearena baizik; bigarren, erlijio gaia Estatuari ez dagokiolako; eta hirugarren, TVEra doazenok, azkenean, apezpiku talde osoaren menpeko direlako. Zer nahiko lukete, beraz, Espainiako apezpikuek? Ez, noski, telebistaz jabetzerik, ez eta hango programak eratzerik; baina bai, Kontzilio ondoren Espainiako Elizari eman nahi dioten zuzenbidea xuxenki ematerik. Ala, katolikoei hitz egin nahi zaienean, Eliza katolikoaren hierarkia zapuztuz* lan egin nahi da? Zer-gatik, norentzat eta zertarako? Holamoduzko arrazoinak ematen ditu «Ya»k.

Chileko Eliza eta Gobernuak

Orain guti Chileko hierarkia katolikoak Gobernuari zuzendu dizkion kritiken ondoren, Pinochet-en Gobernuak bortizki* erantzun du. Batez ere nabarmena da, Leigh jeneralak, Gobernuko jeneraletakoa denak, esandakoa: haren ustez, Elizaren jokabide horrek «nazioarteko marxismoaren tresna bihurtzen ditu apezpikuak, ohargabeen izan arren». Bestalde, Silva Henríquez Kardinala, maiatzaren lehen egunetan, berriz ere, Erromara etorri da, Aita Sainduari egoera berriaren albisteak ematera.

Aquinotarraren VII. mendeurrena dela eta

Munduan zehar, Aquinoko Tomasen eguna ospatua dute Kultur Etxeek, aurtengoak berezitasun aipagarri bat duelarik: haren heriotzearen zazpigarren mendeurrena,* alegia.*

Pentsa genezake, gaurko garaia ez dela egokiena, haren goresmenak egiteko; baina, hala ere, hitz batzuk* merezi dizkigu Erdi Haroko teologo eta pentsalari handienetakoak, guztiok dakigun arrakasta* utzi baitu bere ondotik mendebaldeko* kultur barnean. Ezin egokiagoa da, Chénu teologo ezagunak konferentzia batetan oraindik orain eginiko oharra, hots,* gaurko ospakizuna ez dela goraiapamen triunfalista bat, zeren* eta Tomas Aquinokoa aski* eta gehiago izan baita «ohoretua, intsentsatua, gantzutua,* lurperatua».

Frantziako teologoaren hitzen ondotik, esan dezagun zer-gatik egiten dugun geure aipamena: besteren artean, kultura berri bat hasten edo jaiotzen den eta teologia berri baten eskegorian gauden une honetan, ba duelako Aquinoko jakintsuak esatekorik.

Ezagutu zuen garaia, aski nahasia zen. Orduko gizarte giroak aldaketa sakonak egiten ziharduen. Eta, kultura berriaren bide urratzeak sortu zituén zalantza eta ilunaldian, inork ez bezala igarri* zuen, teologiak berak egoera berrietara jarri beharra zuela, «aggiornatu» beharra zuela, argi egiteko gauza izango bazen.

Eginkizun honek zera eskatzen zuen, Ebangelioaren betiko mezua* dotrina eta instituzio hertsia* batetatik libratzea, eta

adimen berrien gai izan zedin lantzea eta itxuratzea. Ez zen lan eroso.* Kontrako korronteak zebiltzan burrukan, eta berehala nabarmendu ziren bi jarrera:* mugimendu ezkertiarra, libre-pentsalaria, panteista, «humanisme de cette terre» delakoaren defendatzaile sutsuek osatzen zutena; eta, berrizale hauen aurrez aurre, izpiritu kontserbakorrak, maioria osatzen zutenak, beren jarreran googorki finkatuak, kultura zaharrari gero eta gehiago atxikiak.* Eta, beti bezala, jarrera bien erdian, ortodoxiaren zaintzaile zorrotza, hierarkia, zenbaitzuen gainera kondena bat baino gehiago eror* erazi zuena.

Zurrumiloaren* erdian aurkitzen zenez gero, jarrera bat hartu beharrean zen Tomas ere. Bi fronteetan burrukatu zen, eta biotako erasoaldiak* jasan behar izan zituen.

Hemen, haren irekitasunaren berri eman nahi dugu. Chénuk oroiterazi duenez, «sekulartzearen» alde jokatu, bere izpiritu zabalaren agerbiderik garbiena erakutsi zuen. Kultura berria, grekoena, teologia zaharrari itzal egiten hasi zitzaionalarik, eta teologoek eta hierarkiak itzal horren hedadurari* beldurrez begiratzen ziotelarik, Tomasen dotrina berriak txunditu* egiten zituen entzuleak: «Antropologiak teologiaren gain ba du agintea, hura* determinatzen ez badu ere. Bi unibertsoen loturaren erdian gizona datza, izpiritu eta materia. Eten gabe ari da gizona elkar hizketan, eraikiz doan munduarekin. Naturak ba du berezko izate bat, duintasun* bat, sinestuna galdeka jar erazten duen zerbait. Arrazoinak ba du zer esanik sineste arloan, baina bere teknika propioaren arauera*».

Honelako irakatsiak behaztopo* gerta zitezkeen; baina ez zen Tomas horregatik kokildu,* ez zuen atzera egin, jarrera horrek ez behar bat baino gehiago ekarriko bazion ere. Eta, gure egunetako beste askoren antzera, goitikako kondenarik ezagutu zuen.

Orobat,* Ebangelioaren askatasuna traba eta eragozpen guztitatu libre ikusi nahiak, arazo zail baten erdian jarri zuen. Sortu berri ziren Dominikotar eta Frantziskotar Ordenak kinka* larrian bizi ziren, alde guztietatik irainduak* eta mexpretxatuak zirelarik. Beren predikuz eta bizikera hertsiairen* exenpluz feudalismoaren ekonomi sistemaren arbuizatzaile* gogorrenak bilakatu* ziren, eta ongi baino ongiago finkatua zegoen garaiko eliz hierarkiaren estruktura bera salatzen zuten. Horregatik, goi mailakoengandiko gorrotoa beren buruen gainean sentitzen hasiak ziren. Oroit dezagun harako gertaera bitxi hura: dominikotarren etxea hirizainek inguratu behar izan zuten, «eskuindar komando» batek (Chénuren hitzak) indarrez hartu nahi baitzuen.

Jokabide zuzen eta garbian inork iraungo badu, arrisku eta oztupo ugari gaintu behar ditu. Eta hor dugu Aquinotarra, bere exenpluaren erakuspide arras* gaurkoa ematen: gizonak Ebangelio berri bat bizi dezakeela, kultura berriaren garaian gizartearentzat argi eta indar izan dadin.

Bai, zinez,* Tomismoak gaurkotasuna galdua badu ere, Tomasek, kultur bideetan maisu izan diren beste askoren artean izanen du tokirik, zenbait puntutan munduaz zuen ikuspegiak ukitu beharra badu ere. Eta, dena den, haren exenplua onhartzten dugu, Ebangelioaren izpirituz jantzitako Eliza baten alde lan egin nahi dugunok behinik behin.

Egileak:

Jose A. AGIRRE
Joanes GOIA

dezagun, daigun
dezake, daike
diote, deutsoe
ditzake, daikez
genezake, geinke

dizkigu, deuskuz
zaie, jake
zion, eutson
zioten, eutsoen
zitzaion, jakon